



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 16a

59. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernu eta RENFE premiatzen dira Altaria trena Altsasun gelditu dadin. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da foru dekretuak eta ebazpenak Euskarari buruzko Legeko 8. artikuluan xedatuari egokitu dakizkion. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da trafikoko istripuei aurrea hartzeko zenbait jarduketa abiaraz ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da hizkera ez-sexistaren erabilera arautu eta sustatu dezan Nafarroako administrazio publikoek sortutako agiri guztietan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, CIAk Espainian egin dituen legez kanpoko jarduerak arbuiatzen ditu Nafarroako Parlamentuak. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu euskal presoei buruz Ibaetako Foroak Espainiako Gobernuari eginiko eskaerak. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, San Frantzisko Xabierkoaren bizitzari buruzko ikus-entzunezkoa euskaraz editatu ez izanari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (10. or.).
- Galdera, euskara erabiltzeko arautegia aplikatzeko ekintza-planen errebisioari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (10. or.).
- Galdera, Barañainen Mendive jaunaren burdindegia aurreratuari buruz eta hura ETAk egin zuela baieztatzeko txostenak eduki edo ez edukitzeari buruz iragan apirilaren 25ean Sanz jaunak egin zituen adierazpenei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (11. or.).
- Galdera, itxaron zerrendei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (12. or.).

- Galdera, antzutasunari eta ugalkortasun ezari aurre egiteko jarduketei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (12. or.).
- Galdera, Lehendakariak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria kargutik kentzeko izan dituen arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Europako Batzordeari European estualdiak kudeatzeko sistemak estandarizatu eta normalizatzeko proiektu bat proposatu izanari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntzak eragindako gastu osoa bere gain hartzeak ekarriko lukeen kostuari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak I eredia ezartzera bideratzen dituen baliabideei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Zuñigako ahate-granjako instalazioei irekitako espedienteari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Tafallan IAT bat instalatzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Legionella agerpenari eta hoztorreei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako bigarren osasun planari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (17. or.).
- Galdera, 9/2005 Errege Dekretua betetze aldera erabilitako irizpideei buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (18. or.).
- Galdera, zaratari buruzko legea garatzen duen dekretua noiz eta nola aplikatuko den jakiteko, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (18. or.).
- Galdera, legionellosiak kaltetutakoei 1999tik hona Nafarroako Gobernuak ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (19. or.).
- Galdera, udalaren dirulaguntzarik gabe bizilagunen eraikinetan igogailua paratzeko obretako zergak arintzeko aukerari buruzkoa, foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egina (20. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta RENFE premiatzen dira Altaria trena Altsasun gelditu dadin.**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Espainiako Gobernua eta RENFE premiatzen dira Altaria trena Altsasun gelditu dadin"

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Orain dela gutxi, Renfe tren-operadoreak, linea luzeen negozioaren unitatearen bitartez, kendu egin du Irun eta Madril egunero lotzen zituen Talgo trenaren zerbitzua, zeina 17:36an Altsasun geratzen baitzen.

Horren ordez, Iruña eta Irun artean Madrilera doan Altaria trenaren luzapen bat jarri da abian, joan eta etorrikoa, eta Altsasutik iragaten da 18:28an, baina geratu gabe.

Sakanan kezka handiarekin ikusten ari dira 20.000 biztanle dituen eskualde batetik tren zerbi-

tzuak kentzen ari direla, bai erregio mailakoak bai linea luzeetakoak (2006ko urtarrilean Gasteizetik lotura ere kendu zen), eta horren ordez lineako autobusak edo abiadura handiko trenak jartzen dituztela, betiere Altsasutik iragan bai baino gelditzen ez direnak.

Hartara, larriki hondatzen eta gutxitzen ari dira Sakanako biztanleek gaur arte eduki dituzten garraio zerbitzuak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Renfe tren-operadoreak premiatzen ditugun Altsasutik iragan eta Madrilera doan Altaria trenak herri horretan minutu bateko merkataritza geraldia bat egin dezan, Sakanako biztanleei zerbitzua emateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Renfe tren operadorea premiatzen ditu Sakanako herritarrek behar adinako tren zerbitzuak eta kalitatezkoak izan ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren kudeaketak egin ditzan Sakana aldeko tren zerbitzua bermaturik egon dadin eta egokia izan dadin.

4. Erabaki hau igorriko zaie gobernu zentralari, Renfe tren-operadoreari eta Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2006ko ekainaren 2an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretuak eta ebazpenak Euskarari buruzko Legeko 8. artikuluan xedatuari egokitu dakizkion.**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da foru dekretuak eta ebazpenak Euskarari buruzko Legeko 8. artikuluan xedatuari egokitu dakizkion".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

18/1986 Foru Legeak, euskarari buruzkoa, 8. artikuluan hauxe dio: "Foru Komunitatearen topónimoek gaztelaniaz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera: b) Eremu misto eta ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohiko izen bat baldin badute, **biak erabiliko dira**. Eta hau eransten du: "Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, Nafarroako lurraldearen barruan eta ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira eta errotuluak haiekin bat etorriko dira. Nafarroako Gobernuak errotulazioaren normalizazioa arautuko du, Estatuak onetsi dituen nazioarteko arauak beti errespetatuz."

Artikulu honetan finkatutakoari jarraiki Nafarroako Gobernuak herri batzuen izen ofizialak onartu ditu, herri horiek eskatuta.

2006ko otsailaren 6ko Erabakiaren bidez Nafarroako Gobernuak "Lizarraren izen ofizialaren aldaketa ez onartzea erabaki zuen." Baina errealtatea bestelakoa da bideetako seinaleetan izen ofizialetatik bakarrik gaztelaniazkoa, Estella, erabiltzen baitu. Kontuan hartu behar da ekainaren 13ko 229/1991 Foru Dekretuaren bidez, Lizarraren izen ofizialak onartu zirela. (NAO, 80. zenbakia, 1991ko ekainaren 13koa).

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilariak 2006ko apirilaren 6ko Osoko Bilkuran adierazi zuen bideetako seinaleetan izen ofizialak ez jartzeko 2001eko urtarrilaren 8ko Erabakiaren bidez onetsitako "euskararen erabilerrari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko ekintza-planean" ezarritakoa aplikatzen dela: "3.4. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilariak behar diren neurriak hartuko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontrolpekoak edo jabetzakoak diren bide, errepide eta autobideetako seinaleak gaztelania hutsean errotula daitezten. Orain daudenak, agindutakoa betetzen ez badute, lehenbailehen kenduko dira." Begi-bistakoa da artikulu honek ez duela Euskararen Legearen 8. artikuluan esaten dena betetzen. Aitzitik, aldatu egiten du Legearen esanahia.

Arestian aipaturikoa kontuan hartuta, honako erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indarrean dauden Foru Dekretuak eta erabakiak egokitu ditzan Euskararen Legearen 8. artikuluan esaten duena betetzeko eta horren ondorioz herrien izendapen ofizialak bideetako seinaleetan jar ditzan.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da trafikoko istripuei aurrea hartzeko zenbait jarduketa abiaraz ditzan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da trafikoko istripuei aurrea hartzeko zenbait jarduketa abiaraz ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Laster uda iritsiko denez, eta harekin batera, ohikoa den bezala, oporraldietako joan-etorriak eta Nafarroako herrietako jaiak, eta lurralde mailako zir-

kulazioaren handitzea, eta zirkulazio-istripuei aurrea hartzeko ardura, bada, egokia da bide-segurtasuna hobetze aldera beharrezkoak diren jarduketa guztiak abian jartzea. Mozio honekin, Nafarroako administrazio publikoen jarduketak indartu eta haiek hobeki koordinatu eta optimizatu nahi ditugu.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gutxienez ere ondoko jarduketak abian jarri eta koordinatu ditzan, uda garaian trafikoko istripuei aurrea hartzeko eta bide segurtasuna areagotzeko:

- Presako jarduketak errepideen sareko gunetara bultzatzea.
- Bide segurtasunaren eta trafikoko istripuei aurrea hartzearen aldeko kanpainak.
- Toki entitateekiko koordinazioa, herrietako jaietan garraio kolektiboak sustatu ditzaten.
- Gazteek drogak eta alkohola kontsumitzearen aurkako kanpaina berariazkoa.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 26an

Eleduna: Fernando Puras Gil

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkera ez-sexistaren erabilera arautu eta sustatu dezan Nafarroako administrazio publikoek sortutako agiri guztietan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkera ez-sexistaren erabilera arautu eta sustatu dezan Nafarroako administrazio publikoek sortutako agiri guztietan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Hizkuntzaren erabilera sexistarekin bukatzea "ekintza positiboa" izena daraman bazterkeriaren aurkako zuzenbidearen kontzeptu propioan sartzten da.

Espainiako zuzenbidearen esparruan, hizkuntzaren erabilera ez sexista arautzea bat dator, inongo mugarik gainditu gabe, Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluekin eta 33/2002 Foru Legearekin.

Foru erkidegoan prestatu berria dute aukera berdintasunerako I. plana, zeinak 1.4 helburuan (2.1.2 eta 2.2.5 ekintzak) eta 3.1 helburuan (3.1.6 ekintza) neurriak ezartzen baititu administrazio-hizkerara hizkuntza ez-sexista ekartze aldera.

Nafarroako foru eta udal zuzenbidean euskararen ezagutza baloratzeari buruz jaso diren bazter-

keria positiboko neurrien aldean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista baloratzea egokiagoa da aukera berdintasunen printzipioa gauzatzearen ikuspuntutik, ulertuta bigarren kasu horretan abiapuntuak berdinak direla, zeren eta delako neurria ekintza positibo ez-bereizlea edo neutroa baita; hau da, tratuan ez du positiboki baztertutako taldea bereizten positiboki baztertzen ez denetik.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako administrazio publikoek sortzen duten dokumentazio guztian hizkuntza ez-sexistaren erabilera arautu eta susta dezan, eta positiboki baloratu (edo puntuatu) ditzan hizkuntza hori erabili nahi duten pertsonak edo entitateak (Nafarroako administrazio publikoek eginiko deialdi publikoetan edo lanpostuetarako deialdietan eta kontratazio espedienteetan) edo haiekin harremana duten entitateak.

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Eleduna: Fernando Puras Gil

---

## **Mozioa. Horren bidez, CIAk Espainian egin dituen legez kanpoko jarduerak arbuiatzen ditu Nafarroako Parlamentuak.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "CIAk Espainian egin dituen legez kanpoko jarduerak arbuiatzen ditu Nafarroako Parlamentuak."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Europako Kontseiluaren behin-behineko txosten baten arabera, Espainiak –eta beste 13 herrialdek ere bai– bere lurraldea erabil zezan utzi zion Amerikako Estatu Batuen Inteligentziaren Agentzia Zentralari (CIA) gizon-emakumeak legez kanpo bahitu eta espetxe sekretuetara eramateko; atxilotuei espetxe horietan galdeketa egin eta torturak aplikatu zitzaizkien.

Europako Kontseiluko ikerlari Dick Marty suitzarraren behin-behineko txostenean azpimarratzen da CIAko taldeek Palman prestatzen zituztela

beren misioak, eta bertan hartzen zutela atsedean misio horiek burutu ondoren.

Gobernuko lehendakariak eta Kanpo Arazoetarako ministroak Diputatuen Kongresuan eginiko agerraldietan, argi geratu da gobernuak dauzkan informazioaren eta agirien arabera egiazta litekeela CIAk Espainiako aireportuak legez kanpo erabili zituela, zuzenean nahiz ezkutupeko aire konpainia pribatuen bitartez. Bestalde, Gobernuko lehen lehendakariordeak adierazi du Inteligentzia Zentro Nazionalak (CNI) eta CIAk modu “etengabea eta jarraitua” lan egiten dutela nazioarteko terrorismoaren aurkako baterako borrokan.

Inplikaturiko hegazkinetako bat, “Gulfstream IV” izenekoa, zeina behin baino gehiagotan aireratu eta lurreratu zen Espainiako aireportuetan, Abu Omar Milanen bahitu eta 2003ko otsailaren 18an Egiptora eramateko erabili zen; kasu hori ikerketa judizial batez argitu nahian dabil Milango Spataro epailea. Gure herrialdeak zuzenean hartu zuen parte, halaber, Khalid al Masri herritar alemaniarren lekualdatzean: Mazedonian bahitu zuten 2003ko abenduaren 31n eta Kabulera eraman zuten N313P matrikuladun 737 Boeing batean; hegazkin hori, legez kanpoko misio hori betetzeko, Palmako Son Sant Joan aireportuan aireratu zen 2004ko urtarrilaren 23an, 17:45ean, eta Mazedoniako Skopje aireportuan lurreratu zen, al Masri hartu eta Afganistanera eramateko. Urtarrilaren 26an itzuli zen Son Sant Joanera. Azken kasu hori Munichen (Alemania) ikertzen ari dira epaileak. Antzeko hegaldi ugari egin dira, Espainiako aireportuetan hamaika eskala egin dituztenak; besteak beste, Tenerife Iparraldeko Los Rodeosen, Reina Sofian, Tenerife Hegoaldean eta El Pratzen.

CIAk ustez egin dituen legez kanpoko hegaldiei buruzko prozedura judizialak zabaldu ditu Espainiako Justiziak, besteak beste Tenerifeko Santa Cruzen eta Mallorcako 7. Lehen Auzialdiko Epaitegian; azken horren epaile titularri Estatuko fiskal nagusiak ezezkoa eman zion kasua Auzientzia Nazionalera aldatzeko eskatu zuenean. Eta Balear Uharteetako Parlamentuak, 2005eko azaroaren 22an, aho batez onetsi zuen deklarazio instituzional bat, zeinak adierazten baitzuen ikertu beharrekoa zela CIAko hegazkinen ustez Palmako aireportua erabili izana.

Europako Kontseiluko Parlamentu-biltzarreko Gai Juridikoen eta Giza Eskubideen Batzordeko lehendakari Dick Martyk eginiko txostenean –CIAren hegaldiak ikertzeko batzordeko txostengilea izan zen Dick Marty–, zehaztuta ageri da CIAren ehunka hegaldi izan zirela Europako lurraldean 2001etik 2005era, eta frogatutzat jotzen da jendea bahitu eta leku batetik bestera eraman zela; txos-

tengilearen arabera, oso sinesgarritasun txikikoa da Europako gobernuen informaziorik ez izatea beren lurraldeetan gertatzen ari zenari buruz. Gati-buen legez kanpoko garraio eta atxiloketak ikertzeko Europako Legebiltzarrak sorturiko aldi baterako ikerketa batzordeko buru Claudio Fava bat dator iritziz horrekin, eta ildo berekoak dira, halaber, Amerikako Estatu Batuetako estatu-idazkari ohi Colin Powellek eginiko adierazpenak, zeinetan baieztatzen baitu CIA Europako gobernu batzuen eta Washingtingo gobernuaren arteko adostasunaz baliatu zela, eta gobernu horiek, gai honetan, Amerikako Estatu Batuen menpe jarri zirela, nazio-subirotasunaren kaltetan.

Gaiak garrantzi handia dauka nazioarteko zuzenbidea eta barneko zuzenbidea zaintzearen ikuspuntutik, bereziki giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen alorrean, eta, horregatik, Europako aipatu erakundeez gainera, beste batzuek ere adierazpenak egin dituzte; esate baterako, Europako giza eskubideen komisario Álvaro Gil-Roblesek, zeina, Estrasburgoko Auzitegiarekin batera, Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren zaindaria baita, Human Rights Watchek eta Aministia Internazionalak ere ezin eztabaidatuzko txostenak egin dituzte gaiari buruz.

Izan ere, litekeena da legez kanpoko jardura horiek urratzea, Espainiako ordenamendu juridikoa ez ezik, Torturaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa, Terrorismoaren aurkako borrokan atxilotutako pertsonen emantzipazioari buruzko Ginebrako Konbentzioa eta, areago, Europar Batasunaren Ituneko 6. artikulua eta Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutuko 7. artikulua ere.

Askatasunaren eta segurtasunaren arteko oreka zail horretan, garrantzitsua da hiru botereek zuzenbideko estatuko erakunde guztien funtzionamendu erregular eta normala bermatzea, ahal den gardentasun handienarekin, halako moduan non ezin izanen baita gertatu pertsonen askatasunak eta oinarrizko eskubideak kalteturik ateratzea eta terrorismoaren aurkako borrokak azpizana egitea balio demokratikoei eta giza eskubideei. Hori dela eta, garrantzitsua da poliziaren eta epaileen kontrola, bai eta barne zuzenbideko lege- eta administrazio-xedapenak ezartzea eta nazioarteko akordioak onestea, Espainiako lurraldean legez kanpoko jardura horiei aurrea hartzeko eta haiek ikertu eta zehatzeko.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuaitzen ditu CIAk Espainiak egiten dituen legez kanpoko jardurak, bereziki “entrega bereziak” deitzen direnen

esparruan gauzaturiko aire-operazioekin zerikusia dutenak. Nafarroako Parlamentuaren aburuz, jarduera horiei amaiera eman behar zaie.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari exijitzen dio CIAk Espainiako lurraldean eginiko legez kanpoko operazioei buruzko informazioa argitara dezan, eta guztiz lagun ditzan Europako Parlamentuan eta Europako Kontseiluko Parlamentu-biltzarrean eraturiko ikerketa batzordeen lanak.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du ahal den zehaztasun guztiarekin berrikusi eta gaurkotu ditzan hegazkinen barrualdea kontrolatzeko eta ikuskatzeko prozedurak, bai eta joan-etorrien gainerako baldintzak ere, aire-nabigazioari buruzko nazioarteko legeak betetzen direla bermatzeko, eta, berariaz, Chicagoko 1994ko Konbentzioa, Espainiako lurraldeko hegaldi zibilei buruzkoa, halako moduan non atzerriko hegazkinen ezin izanaren dituzten gure aireportuak erabili jarduera ez-zibil edo legez kanpokoetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Espainia eta Iparramerikako Batzorde Iraunkorrean dauden Defentsa eta Atzerri ministerioetako ordezkari espainiarrek areago

zaindu ditzaten gure aire edo lur espazioan misio ofizialetan dabiltzan Estatu Batuetako hegazkinen hegaldiak edo eskalak egiteko alde aurretiko eta banakako baimenak, Espainiaren eta Amerikako Estatu Batuen Defentsarako 1988ko Lankidetzaren Hitzarmenaren 2002ko apirilaren 20ko zuzenketa protokoloa xedapenei jarraituz, eta azter dezaten aipatu protokoloaren deuseztapena sustatzea komenigarria ote den, hegaldi ofizialen kontrolen halako laxatze bat gertatu zela uste baldin bada.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du debeka diezaien Espainiako aire espazioan eta aireportuetan sartzea CIAren enkarguz aireraten diren eta ustezko terroristen legez kanpoko garraioko delitu-ekintzetan nahasturik egon omen direlako Europako Legebiltzarren eta Europako Kontseiluaren txostenetan agertzen diren hegazkinei.

6. Erabaki hau igorriko zaie Espainiako Gobernuari lehendakariari, Espainiako Atzerri Gaietarako Ministerioari eta Amerikako Estatu Batuek Espainian duen enbaxadari.

Iruñean, 2006ko ekainaren 8an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu euskal presoiei buruz Ibaetako Foroak Espainiako Gobernuari eginiko eskaerak.**

### **ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu euskal presoiei buruz Ibaetako Foroak Espainiako Gobernuari eginiko eskaerak".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Ibaetako Foroa iazko azaroan sortu zen euskal preso politikoen eskubideak defendatu eta aldarrikatzeko. Egun, pertsona horiei oinarritzko zenbait eskubideren gauzatzea ukatu egiten zaie; besteak beste:

- Errespetuzko tratu duina ukatzen zaie, jipoiak, tratu txarrak eta isolamendua mantentzen diren heinean.



- Ez daukate osasun laguntza egokirik eta gaitasun larriak dituztenak ez dira aske geratzen.

- Komunikazioak erabat mugatuta dituzte, familia zein lagunekin; kasu gehienetan komunikazioak kontrolatuta daude.

- Euskara erabiltzea debekatuta dute hainbat kasutan, beste hizkuntzarik ezagutzen ez duten euren seme-alabekin hitz egiteko ere.

- Ikasteko oztopo ugari daukate; euskaraz ikastea erabat debekaturik daukate. Duintasunezko amatasun-aitatasuna bizitzeko aukerarik ez dute. Zigorraren hiru laurdenak edo bi herenak bete dituztenei ez zaie baldintzapeko askatasuna aplikatzen; gainera, erredentzioen eta espetxe-onuren aplikazioan diskriminaturik daude.

Hau guztia, dispertsio politikaren babesean ematen da. Dispertsioa espetxe erregimenaren printzipioen aurkakoa da eta zigorra da familia zein inguruko jendearentzat. Preso batekin minutu batzuk egoteko, izugarrizko dirutza eta denbora behar da, bidaia luzeek dakartzaten arrisku ugariekin batera.

Espainiako Gobernuak euskal preso politikoen aurka erabiltzen duen espetxe politika nazioarteko itunen aurkakoa da. Gobernuak preso daudenak mendeku eta xantaia gisa erabiltzen ditu, xantaia politikorako, hain zuzen ere, zuzenbide estatu batean onartezinak diren eta gizatasunaren aurka-koak diren erregimen bereziak aplikatuz.

Euskal Herriko gehiengo sozial, politiko eta sindikalak eta hainbat erakunde, eskubide hauen guztien errespetua aldarrikatzen ari dira aspaldian, dispertsio politika amai dadin eskatuz. Egoera larria da, eskubideen urraketak ezin du jarraitu

eta, horretarako, honako eskari hauek luzatu berri dizkio Ibaetako Foroak Espainiako Gobernuko buru Rodríguez Zapatero jaunari:

- Dispertsio politika bertan behera utz dezan eta euskal preso politiko guztiak Euskal Herrian bildu ditzan.

- Presoen eskubideen urraketarekin amai dezan.

- Estatuaren legediak jasotzen dituen espetxe-onurak, erredentzioak eta baldintzapeko askatasuna berehala aplikatu diezazkien.

- Euskal presoen izaera politikoa onar dezan. Izan ere, izaera berezi hori berez onartu egiten da zentzu negatiboan, haien eskubideen urraketaren bitartez eta zigor-araubide berezia aplikatuz. Estatus politikoa onartu behar zaie, hau da, gauden prozesu politikoan kolektibo gisa haien hausnarke- ta eta ekarpenak egiteko.

Hori dela-eta, Aralar parlamentu-taldeak ondo-ko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Parlamentuak bat egiten du Ibaetako Foroak Espainiako gobernuburuari egindako eskariarekin.

2. Parlamentuak eskari horretan jasotzen diren puntuetan aldarrikatzen dena defendatzeko konpromisoa hartzen du gizartearen aurrean.

3. Euskal preso politikoei, euskal herritarrek diren heinean, beren eskubideen jabe izan behar dute. Horrela, Nafarroako Parlamentuak eskubide horiek aktiboki babesteko eta defendatzeko konpromisoa sendoa hartzen du.

Iruñean, 2006ko ekainaren 8an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, San Frantzisko Xabierkoaren bizitzari buruzko ikus-entzunezkoa euskaraz editatu ez izanari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea San Frantzisko Xabierkoaren bizitzari buruzko ikus-entzunezkoa euskaraz editatu ez izanari buruz foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua

eta hurrengoan babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara, santuaren bizitzari buruzko ikus-entzunezko bat editatu du, antza denez ikastetxeetan zabaltzeko.

Harrigarria da euskara gure erkidegoko hezkuntza sisteman egon arren eta gurasoek eskatzen duten hizkuntza bat izan arren, ikus-entzunezko hori ez editatu izana gure hizkuntza hautatzeko aukerarekin; alabaina, frantsesa eta ingelesa hautatzeko bidea ematen du.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Zein arrazoi daude bideo hori euskaraz editaturik ez egoteko?

Iruñean, 2006ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

**Galdera, euskara erabiltzeko arautegia aplikatzeko ekintza-planen errebisioari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea euskara erabiltzeko arautegia aplikatzeko ekintza-planen errebisioari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Zioak:

2006ko apirilaren 6ko Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko Lehendakariak adierazi zuen eus-kara erabiltzeko arautegia aplikatzeko ekintza-plana errebisatzeko agindua eman duela errotulazio

elebidunak baimentzeko (Nafarroako Parlamentuko bilkura egunkaria, 72. zenbakia, 2006ko apirilaren 6ko bilkura, 23. orria). Hori dela-eta ahoz erantzuteko ondoko galdera aurkeztu dugu:

Zein egoeratan dago aipatutako ekintza-planen errebisioa? Zeintzuk dira aurreikusten diren neurriak nafar guztien hizkuntza eskubideak behar bezala errespetatuak izan daitezen, errotulazioei dagokienez?

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

**Galdera, Barañainen Mendive jaunaren burdindegiaren aurkako atentatuari buruz eta hura ETAk egin zuela baieztatuz txostenak eduki edo ez edukitzeari buruz iragan apirilaren 25ean Sanz jaunak egin zituen adierazpenei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Barañainen Mendive jaunaren burdindegiaren aurkako atentatuari buruz eta hura ETAk egin zuela baieztatuz txostenak eduki edo ez edukitzeari buruz iragan apirilaren 25ean Sanz jaunak egin zituen adierazpenei buruz foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Apirilaren 27an, foru parlamentariak ondoko eskaera aurkeztu zion Nafarroako Gobernuko lehendakariari:

“2006ko apirilaren 25ean zenbait hedabideei eginiko adierazpenetan, Nafarroako Gobernuko

lehendakariak esan zuen apirilaren 22an Barañaingo Udaleko zinegotzi José Antonio Mendive jaunaren burdindegiak pairatutako atentatuari buruzko txostenak eskuratu dituela, eta txosten horietatik ondorioztatzen dela atentatua ETaren buruzagitzaren aginduz egin dela.

Nafarroako Gobernuak txosten horien kopia ematea nahi dugu.”

Iragan maiatzaren 23an, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak aipatu informazio eskaerari erantzun zion ondokoa zioen idazki baten bidez: “Nafarroako Gobernuko lehendakariak ez zituen egin informazio eskaeran aipatzen diren adierazpenak iragan apirilaren 25ean. Hori jakinarazten dut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 14.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko”:

Hedabideetan argitaratutakoa eta kontseilariak adierazitakoa bat ez datozela ikusirik, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ondoko galderari erantzutea nahi dut:

Zer adierazpen egin zituen apirilaren 25ean aipatu atentatuari buruz? Lehendakariak badu ala ez du atentatu-egilea ETA izan dela azaltzen duen txostenik?

Iruñean, 2005eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

## **Galdera, itxaron zerrendei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea itxaron zerrendei buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Zioen azalpena:

Osasun publikoan dauden itxaronzerrendak gero eta jasangaitzagoak dira.

Ebakuntzetarako, kontsultetarako eta esplorazioetarako itxaronzerrendei buruzko datu gaurkotuak oso larriak dira. Azken bost urte hauetan bikoiztu egin da aipatu zerrendetako batean itxaroten dauden pertsonen kopurua.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

– Gure erkidegoko osasun publikoan ebakuntzetarako, kontsultetarako eta esplorazioetarako itxaronzerrendak gutxitzeari dagokionez, zer helburu ditu Nafarroako Gobernuak 2006. urterako?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, antzutasunari eta ugalkortasun ezari aurre egiteko jarduketei buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea antzutasunari eta ugalkortasun ezari aurre egiteko jarduketei buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dezan.

Zioen azalpena:

Laguntza bidezko ugalketako tekniken sorrerak bikote askoren antzutasun eta ugalkortasun eza konpontzeko aukera berriak zabaltzea ekarri du.

Nafarroan, gero eta bikote gehiagok dituzte halako patologiak; hala ere, foru erkidegoko osasun publikoak arazo horiei ematen dien erantzuna desegokia da.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Zer ekimen proposatuko ditu Nafarroako Gobernuak gure foru erkidegoko osasun publikoak erantzun eraginkor eta efizientea emateko antzutasun eta/edo ugalkortasun ezari?

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, Lehendakariak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria kargutik kentzeko izan dituen arrazoiei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Lehendakariak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria kargutik kentzeko izan dituen arrazoiei buruz foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz, galdera

hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Aralar parlamentu-taldearen galdera, honako gaiiei buruzkoa:

- Lehendakariak Gizarte Ongizate kontseilari Palacios jauna kargutik kentzeko izan dituen arrazoiak.

- Gizarte Ongizate Departamentuaren burutza aldatzeak departamentu horrek orain arte eraman duen politikan aldaketarik ekarriko ote duen.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot aurreko galdera aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2006ko uztailaren 9an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, Europako Batzordeari European estualdiak kudeatzeko sistemak estandarizatu eta normalizatzeko proiektu bat proposatu izanari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Europako Batzordeari European estualdiak kudeatzeko sistemak estandarizatu eta normalizatzeko proiektu bat proposatu izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau

egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun dezan.

SOS Nafarroa Koordinazio Zentrorako kudeatzaile informatiko berri baten hornidura kontratuari buruz Comptos Ganberak eginiko behin-behineko fiskalizazio txostenari Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aurkeztu dizkion alegazioetan, honakoa esaten da hitzez hitz:

“Metodologia aldaketa horren bidez –estualdie-takoa bezain ingurune zorrotz erreal batetik input bidez garatutako ziklo iteratibo zorrotzak barne-erabilerari begira hobeki egokitutako produktu bat lortu dugu, zehaztasun gutxiagoko plegu batetik espero zitekeenarekin alderatzen badugu.

Hori guztia indartzera dator SOS Nafarroaren sistemak nazioan nahiz European sortu duen interesa. Halatan, SOS Nafarroan instalatutako sistema oinarri, European estualdiak kudeatzeko siste-

mak estandarizatu eta normalizatzeko proiektu bat ari gara proposatzen Europako Batzordeari.”

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

– Nortzuk proposatzen ari dira?

– Zein urrats egiten ari dira horretarako?

– Zein bide erabili dira?

– Zein izan da proposamen horren emaitza?

Iruñean, 2006ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntzak eragindako gastu osoa bere gain hartzeak ekarriko lukeen kostuari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntzak eragindako gastu osoa bere gain hartzeak ekarriko lukeen kostuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikularen eta

hurrengoan babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion.

0-3 urteetako hezkuntza zerbitzuak funtsezko eginkizun sozial eta hezkuntzako betetzen du. Herritarrak zerbitzu horretaz balia daitezten, parlamentari honen iritziz, tasak eta zuzeneko kostuak kentzera jo beharra dago.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Zenbateko kostua izanen luke Nafarroako Gobernuak Nafarroako 0-3 urteetako hezkuntza eskaintzak sorturiko gastu guztiak bere gain hartzeak?

– Zenbat diru bideratzen du gaur egun Nafarroako Gobernuak 0-3 urteetako hezkuntzara?

Iruñean, 2006ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak I eredua ezartzera bideratzen dituen baliabideei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak I eredua ezartzera bideratzen dituen baliabideei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion.

Argi dago Hezkuntza Departamentuak I eredia ezartzearen aldeko apustua egin duela.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak Nafarroan I eredia ezartzeko gaur egun berariaz bideratzen dituen baliabideek zenbat egiten dute?

Iruñean, 2006ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

---

## **Galdera, Zuñigako ahate-granjako instalazioei irekitako espedienteari buruzkoa.**

**FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Zuñigako ahate-granjako instalazioei irekitako espedienteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2006ko urtarrilaren 24an, departamentu honetako kontseilariak parlamentari horren galdera bati erantzun zion, hain zuzen ere Zuñigako ahate-granjaren instalazioen lege egoerari buruz. Hona zioen erantzunak:

“Egindako ikuskapenari buruzko txostenetik ondoriozta daiteke ez direla bete 993/1999 Ebazpenean eskatutako baldintzak –ebazpen horren bidez, departamentuak aldeko txostena eman zuen jarduera sailkatuko lizentzia emateari buruz–, ez eta abeltzaintza ustiategiei aplikatzekoak zaizkien arau sektorialak –148/2003 Foru Dekretua–. Horrenbestez, zehapen espedientea irekiko da.

Abenduaren 30ean eginiko ikuskapenaren ondorioz, zehapen espedientea ireki zaio ustiategiari arau-hauste larria egiteagatik, Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeko 75.2.a) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hartara, 200.000 euroko zehapena proposatu zen, eta instalazioak aldi baterako ixtea; halaber, ahate gehiago granjara sartzeko debekatu zen, harik eta ezarritako baldintzak bete arte.”

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Zein puntutan dago gaur espediente hori?

Iruñean, 2006ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

## **Galdera, Tafallan IAT bat instalatzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Tafallan IAT bat instalatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau

egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu du IAT instalazioen emakida-hartzaile diren bi enpresarekin, Revisión de Navarra eta Tüv Rheinland Navarrarekin, Nafarroan IAT estazio gehiago jartzeko. Dirudenez, lehentasuna eman nahi zaio estazioak Lizarran, Altsasun, Zangozan eta Oronoz Mugairin jartzeari.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Planteatu al da Tafallan IAT estazio bat jartzeko aukera?

– Lurralde antolamenduko zein irizpide erabili dira erabakiak hartzeko?

Iruñean, 2006ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, legionella agerpenari eta hoztorreei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Legionella agerpenari eta hoztorreei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Iragan ekainaren 4an, Nafarroako Osasunaren Kalitatea Aldezteko Elkarteak salatu zuen 2005eko irailean gutun bat igorri ziola Nafarroako

Gobernuko Osasun Departamentuari, eta horren bidez ohartarazi zuela Nafarroako hoztorreek "egiturazko, funtzionamenduzko eta kokaguneari buruzko gabezia larriak" zituztela eta, horren ondorioz, legionella izateko arriskua oso handia zela.

Horretaz gain, elkarte horrek eta Adepa elkarteak salatu zuten hoztorreak modu desegokian jarri direla funtzionamenduan eta Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak ez dituela behar bezala egin indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkion legionellari aurea hartzeko eta arriskua kontrolatzeko lanak.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

– Osasun Departamentuak ba al zuen Nafarroako hoztorreen egoera kaskarraren berri?

– Zer jarduketa egin dira lehenbiziko legionella kasuak hauteman zirenetik?

– Zer jarduketa egingen dira?



– Egiten al da ohiko kontrolik hoztorreetan, halako gertakariak saiheste aldera?

– Zein egoeratan daude Nafarroako hoztorreak?

– Zein dira infekzioaren lau guneak?

Iruñean, 2006ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

## **Galdera, Nafarroako bigarren osasun planari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Nafarroako bigarren osasun planari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Osasun Departamentuan 2005eko ekitaldian aldaketak izan dituen kontusailetakoa bat lan osasunaren planari dagokiona da, 200.000 euro kendu baitzaizkio.

Kontusailaren gutxitzea justifikatzeko arrazoiak azaltzerakoan, kontseilariak esan zuen 2005ean I. osasun planaren bilakaera gauzatu dela eta

2006an Nafarroako lan osasunari buruzko bigarren plana egiteko diagnosa gaurkotzen ari zela.

2005ean, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio bat eztabaidatu zen; haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen lan osasunari buruzko bigarren plana presta zezan. UPNk eta CDNk atzera bota zuten mozioa, ordezko zuzenketa bat aurkeztuta.

Ezezkoa eman zuten beharrezkoa ez zelakoa, eta lan osasunaren planaren ordeztu, lan osasunaren behatokiaren beharra defendatu zuten.

Koherentzia eta ziurtasun falta hori dela eta, hona gure galderak:

– Egin behar al da Nafarroako bigarren osasun plana?

– Baiezkoan, zergatik ez zuten onetsi talde sozialistaren mozioa, hain zuzen ere Nafarroako Gobernua hura egin zezan premiatzen zuena?

– Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak lan osasunaren behatokia sortzeko?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, 9/2005 Errege Dekretua betetze aldera erabilitako irizpideei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, 9/2005 Errege Dekretua betetze aldera erabilitako irizpideei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Berriki departamentuak 1.200 gutun igorri dizkie foru erkidegoan lurzorua kutsa dezaketen jarduerak egiten dituztenei, beren egoerari buruzko txosten bat aurkez dezaten 2007ko otsailaren 8a

baino lehen. Hori dela eta, honako galderak egin nahi ditugu:

1. Zein irizpide jarraitu ditu departamentuak 9/2005 Errege Dekretua betetzeko?

2. Zer egin behar du Errege Dekretuak agindutako txostenak ez badira eskatutako epean igortzen?

3. Zein aurreikuspen dauzka txostenen, ebaluazioaren eta emaitzen azterketa planifikatzeko?

4. Egin al du departamentuak alde aurreko azterketaren bat 2005eko urtariletik edo lehena-gotik kutsatuta dauden edo egon litezkeen lurzoru-egoerari buruz?

5. Zein giza- eta gauza-baliabide jarri behar ditu txostenak, ebaluazioa eta emaitzak aztertze-ko?

6. Prestatu al du departamentuak planen bat eta jarduketa-proposamenen bat Nafarroako lurzoru kutsatuak halakotzat deklaratzeko? Zein baldintzatan eta zein epetan?

Iruñean, 2006ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, zaratari buruzko legea garatzen duen dekretua noiz eta nola aplikatuko den jakiteko.**

### *FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, zaratari buruzko legea garatzen duen dekretua noiz eta nola aplikatuko den jakiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

2006ko ekainaren 2an aurkeztu zaie autonomia erkidegoei Zaratari buruzko Legea (2003) garatzen duen dekretua. Dekretu horren arabera, ezin da eraiki zarata dagoen tokietan.

Hirigintza arloko eskumenak foru erkidegoari dagozkio, baina udalerrietako zarata-eremuak eta eremu horietako zarata-mailak zehaztu beharko dira. Hori dela eta,

1. Noiz eta nola aplikatuko da aipatu araudia Nafarroan?

2. Zer bide erabiliko dira horretarako?

3. Udalerrientzako irizpide orokorrak ezarriko dira, edo haiek ezarritako irizpideen arabera jarduten utziko zaie?

Iruñean, 2006ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

## **Galdera, Legionellosiak kaltetutakoei 1999tik hona Nafarroako Gobernuak ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Legionellosiak kaltetutakoei 1999tik hona Nafarroako Gobernuak ordaindutako kalte-ordainen zenbatekoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Espainiako Zaintza Epidemiologikoaren Sare Nazionalean, legionellosi kasuen ohartarazpenei dagokienez, Nafarroa da estatu guztian tasa altuena daukan erkidegoa. Aurten, 11 kasu 100.000 biztanleko, eta Iruñean gertatutakoa kontuan hartuz gero, Nafarroako hiriburuan 33 kasu izan dira 100.000 biztanleko.

Nafarroan urteetan zehar gertaturiko legionellosi kasuak kontuan hartuz gero, igoera handia gertatu da: 1999an 15 kasu izan ziren; 2000n, 23 kasu; 2001ean 42 pertsona gaixotu ziren, eta horietatik 6 hil ziren; 2002an, 70 pertsona gaixotu ziren; 2003an, 22; 2004an, 34. Gaur arte, 2006an, 129 dira legionellosi agerpenak kutsatu dituenak.

Datu horiek, berez, kezkarriak dira. Badirudi Nafarroan erraza dela legionellosia agertzea.

Egia da prebentzioak funtsezko eginkizuna duela legionellosi agerpenak ahal den guztian saihesteko. Garrantzitsua eta derrigorrezkoa da legionella sor daitekeen azpiegituretan behar diren kontrolak, ikuskapenak eta jarraipena egitea.

Asko dira behin salaketa aurkeztu ondoren kalte-ordainak jaso dituztenak. Batzuetan, Nafarroako Osasun Zerbitzuak ordaindu behar izan ditu kalte-ordainak.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

Zenbateko kostua izan dute legionellosiak jotakoei Nafarroako Gobernuak ordaindu behar izan dizkien kalte-ordainek, 1999tik gaur arte? Kostuak azaltzea nahi dugu, zehaztuz ea kalte-ordaina bide administratiboan ala epai bidez ordaindu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

## **Galdera, udalaren dirulaguntzarik gabe bizilagunen eraikinetan igogailua paratzeko obretako zergak arintzeko aukerari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI FÉLIX M<sup>a</sup>TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko ekainaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón jaunak egindako galdera, udalaren dirulaguntzarik gabe bizilagunen eraikinetan igogailua paratzeko obretako zergak arintzeko aukerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzónnek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten.

Herritar batzuek galdera egin didate ondoko gaiari buruz. Jakina da igogailurik ez duten eraikinetan igogailua jartzea neurri sozial bat dela, ezgaituak, adinaren ondorioz egoera daudenak ere bai, beren etxeetara iritsi ahal izatea errazten duena.

Bizilagunen eraikin batean igogailua jartzeko obrak egiten direnean, aukera dago obra horien kostua errenta aitortpenetan kenkari moduan aurkezteko. Horretarako, beharrezkoa da instalazioak udalak –kasu honetan Iruñeko Udalak– araturiko dirulaguntza izatea. Udalaren dirulaguntzarik ez badago, ordea, ezin da aipatu zerga-arinketa eskatu.

Hori dela-eta, galdera hau aurkeztu dut:

Uste ote du Nafarroako Gobernuak egoera hori alda daitekeela? Ezezkoan, azaldu zergatik ezin den aldatu.

Iruñean, 2006ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete .....	43,95 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko .....	1,15 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko .....	1,30 »